

KOSTUEN EGITURA

Enpresa bat sortzera goazen horretan beti egongo da kontuan hartu behar den faktorea eta hori kostuena da, zenbat kostatuko zaigun enpresa hori sortzea eta behar den materiala ekoiztea edo gutxienez erostea.

Hasteko, gurea bizikleta elektrikoaren zerbitzua den horretan kosturik garrantzitsua den bizikletak edukitzea da horiek gabe enpresa geldirik egongo litzake eta ez genuke irabazirik edukiko. Bestalde, bizikletak behar ditugun horretan hauen matenua egiteko behar den materiala ere behar beharrezkoa izango da edozein ezbeharren aurrean prest egotea. Ez dugu ahaztu behar bizikleta horiek modu seguruan gorde ahal izateko eta hauek euriarekin edo edozein fenomeno atmosferikorekin ez ondatzeko etxola txiki bat jarriko genukeela plastikozkoa aterpearekin.

Gastu hauek guztiak gainditu ahal izateko eta gainera irabaziak lortzeko modu ezberdinak erabiliko ditugu baina funtsean denek helburu bera edukiko dute dirua lortzea izatea izango dela.

Lehenik eta behin, izango ditugun beste kostu batzuk finkoak dira, hauek langileen soldatak eta lokalaren alokairua izango lirateke. Bizikleten zerbitzua eskaintzen lortzen ditugun irabazien bidez, langileei soldatak ordaindu eta sortuko dugun ofizinaren alokairua ordaindu ahal izango ditugu. Bestalde, alokatuko ditugun bizikletak erosi egingo ditugu eta hasieratik diru hori izango ez dugunez banku baten bidez finantziatuko dugu. Mailegu bat eskatuko dugu eta hori hilabetez hilabete kopuru finko bat ordaintzen joango gara horregatik kostu finko bat izango da.

Bigarrenik, beste hornigai batzuk izango dituzko kostu aldagarrietan egongo litzazkenak eta horietako bat argindarra izango da. Bizikleta elektrikoak izango direnez horiek kargatu egin beharko ditugu eta baita ofizina edukiko dugunez bertan gastatuko duguna. Orduan ezinbestekoa zaigu gure kostuetan energia kontutan hartzea. Lehengaien beharra ez dugu izango ez eta garraioarena ezta ere lehen egunetakoa kenduta. Etxola guztia montatu behar ditugunean plastikozko materiala, materiala erabateko kamioiak... beharrezkoak izango dira baina hauek momentu batean soilik erabiliko ditugunez kostu aldagarrietan kokatzen dira.

Bukatzeko, nahiz eta zerbitzu bat eskainiko dugun beti existituko da eskala ekonomia, edozein funtzio betetzen dituela ere kostuak murrizten badira eskala ekonomia gertatzen dela esaten delako. Gure kasuan, bizikletak dira gure ondasun nagusia eta horiek mantendu egin behar dira baita bankuari horiek erosteko eskatu diegun dirua ere. Horregatik, geroz eta bizikleta gehiago alokatu bizikletak gehiago amortizatuko ditugu eta irabazi marjina handiagoa izango da.

Horregatik, hau dena burutu ahal izateko Low Cost estrategia erabiliko dugu, hau prezio baxuak ezartzean datza eta kalitate baina handiko produktuak edo gure kasuan zerbitzua eskaintzea. Izan ere, gure balorezko helburua bizikletak edukitzeko aukera ez duten pertsonen zerbitzu hau ematea da ehin batean eta hauek bizikletak edukitzeko aukera ez duten pertsonak askotan. Horregatik, prezio eskuragarriak jarriko ditugu ahalik eta jende gehiengana iristeko.